

# Hegoaldeko Pirinioetako eta pre-Alpeen hego-mendebaldeko hariztia

# 2.3.2

## Robledal del Pirineo sur y el suroeste de los pre-Alpes



Europako hego-mendebaldeko haritz ilaundunaren baso muinotar eta menditarrak, Iberiar penintsularen ipar-ekialdetik Suitzaraino zabaltzen direnak, tarteka Italiako ipar-mendebaldean ere azaltzen delarik. Horietan zuhaitz- eta zuhaixka-espezie termofilo ugari izatea dute bereizgarri, eta tartean, *Quercus petraea*, *Q. robur*, *Acer campestre*, *Prunus avium*, *Fraxinus excelsior*, *Carpinus betulus*, *Tilia platyphyllos* eta *Corylus avellana*.

Hazkuntza ertain-altuko baso-komunitateak dira, hiru geruzakoak, irekiak hainbatetan eta zuhaixka-geruza trinko samarrarekin.

Beheko zuhaitz-geruzan *Sorbus torminalis*, *Sorbus domestica*, *Sorbus aria*, *Acer opalus* eta *A. monspessulanum* hazten dira. Zuhaixka-geruzan espezie termofilo ugari eta mesofiloren bat azaltzen dira. Bereziki espezie termofiloek eta udako lehortearekiko erresistenteak direnek osatzen dute belar-geruza, eta baita baso eta baso-orka epeletako beste espezie batzuek ere. Liana termofiloen artean, *Tamus communis*, *Rubia peregrina* eta *Lonicera etrusca* dira adibide.

*Bosques de roble pubescente colinos y montanos del suroccidente europeo, que se distribuyen desde el noreste ibérico hasta Suiza, apareciendo localmente en el noroeste de Italia. Se caracterizan por la participación de numerosas especies de árboles y arbustos termófilos como Quercus petraea, Q. robur, Acer campestre, Prunus avium, Carpinus betulus, Fraxinus excelsior, Tilia platyphyllos, Corylus avellan. Estas comunidades forestales son de crecimiento medio-alto, triestratificadas, abiertas en algunas situaciones y con un estrato arbustivo relativamente denso.*

*En el estrato arbóreo inferior participan Sorbus torminalis, Sorbus domestica, Sorbus aria, Acer opalus y A. monspessulanum. El estrato arbustivo es rico en especies termófilas, contando también con algunas mesófilas. El estrato herbáceo está compuesto sobre todo por especies termófilas y tolerantes a la sequía estival así como por otras especies propias de bosques y orlas forestales templados. Las lianas termófilas están representadas por Tamus communis, Rubia peregrina y Lonicera etrusca.*

344	<i>Quercus pubescens</i>	Ametz ilaunduna	Roble pubescente
15	<i>Acer opalus</i>	Eihar italiarra	Orón
13	<i>Acer monspessulanum</i>	Eihar frantsesa	Arce de Montpellier
8	<i>Acer campestre</i>	Astigar arrunta	Arce menor
464	<i>Sorbus torminalis</i>	Basagurbea	Mostajo
455	<i>Sorbus aria</i>	Hostazuria	Mostajo
462	<i>Sorbus domestica</i>	Gurbea	Serbal
492	<i>Tilia platyphyllos</i>	Ezki hostozabala	Tilo común
63	<i>Buxus sempervirens</i>	Ezpela	Boj
101	<i>Colutea arborescens</i>	Ikara-otsoa	Espantalobos
362	<i>Rhamnus alpina</i>	Otsapagoa	Pudio
371	<i>Rhamnus saxatilis</i>	Tindu-elorria	Espino de tintes
299	<i>Pinus sylvestris</i>	Lergorria	Pino albar
123	<i>Cytisophyllum sessilifolium</i>	Aliageta mehea	Rubiana redonda
185	<i>Genista cinerea subsp. ausetana</i>	Isatsa	Hiniesta
104	<i>Cornus mas</i>	Zuhandor arra	Cornejo
509	<i>Viburnum lantana</i>	Andura	Morrionera
134	<i>Daphne laureola</i>	Garatxo belarra	Adelfilla
31	<i>Amelanchier ovalis</i>	Arangurbea	Guillomo
118	<i>Crataegus monogyna</i>	Iparraldeko elorri zuria	Majuelo
306	<i>Pistacia terebinthus</i>	Ahuntzadarra	Cornicabra
109	<i>Corylus avellana</i>	Hurritza	Avellano
324	<i>Prunus spinosa</i>	Elorri beltza	Endrino
153	<i>Hippocrepis emerus</i>	Koletua	Coletúa
483	<i>Tamus communis</i>	Apomahatsa	Nuez negra
404	<i>Rubia peregrina</i>	Otxar basatia	Agarrarropa
211	<i>Hedera helix</i>	Huntza	Hiedra
248	<i>Lonicera etrusca</i>	Atxaparra	Madreselva
416	<i>Rubus ulmifolius</i>	Arantzua	Zarzamora